

4) IRABAZI ITURRIAK

➤ Forma juridikoa:

- ◆ S.L. (soziedade mugatua) bat sortuko dugu.

GURE ENPRESA Sozietate Mugatua edo Erantzukizun Mugatuko Sozietatea (SM edo EMS) kapital-sozietate bat da, eta haren ezaugarri nagusia erantzukizuna mugatua da, hau da, gure ekarpenarekin bakarrik SL-ari egindako ekarpenarekin konpondu ahal izango dira baliozko ezbehar guztiak, hala nola porrota, salmenta-helburuak edo produktu osoa galtzea. Horrela pertsona juridikoa izanik, gaitasun juridiko bat eta bere ondare propioa izango du. Ondare hori da bere eragiketez arduratzen dena, eta ez harekin berariaz hartutako betebeharez (kapitalean egiteko dauden ekarpenak, adibidez) soilik arduratzen diren eta merkataritza-izaera duten bazkideak.

Gutxieneko kapital soziala 3.000 €-koa izanik, 160.000€-ko ekarpen bat egingo dugu, bakoitzak 40.000€ jarritz. Puntu hau kapital sozialerako ekarpenetan sakonki garatuko da.

Izena: Erantzukizun Mugatuko Sozietatearen, Sozietate Mugatuaren, SL-ren edo SL-ren izena berariaz agertu behar da. Gure kasuan ``KUYI SL``

Bere izena ezin izango da lehendik dagoen beste sozietate batena bezalakoa izan.

Nazionalitatea: Espainiakoa izango da gure bizilekua Espainian dugularik.

Helbidea: Espainian finkatuta egongo da, non helbidea eta administrazioa edo establezimendu nagusia duten.

Eratzeko, eskritura publikoa egiletsiko ditugu (notarioaren aurrean), eta Merkataritza Erregistroan inskribatuko gara.

Eratze-eskritura: Bazkide guztiek eman behar dute eta partaidetza sozial guztiak beren gain hartu behar dituzte.

➤ Erregistroko inskripzioa:

Bazkideek eta administratzaileek eratze-eskritura Merkataritza Erregistroan aurkezteko ahalmena eta betebeharra dute, inskribatzeko, izapide eta ordainketa guztiekin.

➤ Kapital sozialerako ekarpenak:

Fundatzaileen ekarpenak benetan egin behar dira, ezin dira lan edo zerbitzu izan, eduki ekonomikoa duten ondasun edo eskubideak izan behar dute.

◆ Honako hauek izan daitezke:

- Dirudunak banku batean gordailutuko dira, eta banku horrek ziurtatu egingo du, notarioari aurkezteko.
- Ondasun higiezinak, higigarriak, kreditu-eskubideak edo martxan dagoen enpresa bat izan daitezkeen diruzkoak ez direnak. Balorazioa aditu independenteen txostenaren bidez egingo da.
- Hasiera batean 4 sozio izango gara. Bakoitzak ekarpen bat jarriko du (40.000€), guztira 160.000€-ko kapitala gauzatuz. Honela enpresaren partaide izango da proportzio berdinean.
- Administratzaileek kudeatzen eta ordezkatzeko dute gizartea (epaiketetan edo epaiketarik kanpo). Honako hauek izan daitezke:
- Modu solidarioan jarduten duten administratzaile batzuk.

➤ **Negozio-proposamena:**

- ◆ Entrega epeak ahalik eta arinen izanda, bi modalitate edukiko ditugu:
 - Bata etxean bertan jasotzea (Gain kostu bat izanda garraioarengatik).
 - Bezeroa erosketaren bila joanda. “Chat” baten bitartez saltzailearekin kontaktuan jarrita eta nekazariarekin adostutako puntura joan.
- ◆ Garraioa eta deskontuak:
 - 80€-ko erosketa baino gehiagoko salmentetan, %5-eko deskontua izango dute azken zenbatekoan.
 - 100€-kon salmenten garraioa dohainekoa izango da, %5-eko deskontuaz aparte.
 - Inskripzio utzagatik %10-eko deskontu kupoi bat izango dute (50€-ko erosketa minimo bat eginda).
 - Inskripzioa egin duen bazkide batek, beste 10 bazkide gonbidatzen baditu %15-eko deskontu kupoi bat lortuko du (50€-ko erosketa minimo batean)
- ◆ Bazkide txartela egiteaz sozio txartela lortuko dute, hilean 4€-ko ordainketa suposatzen duena, baina erosketa guztietan %3-ko deskontua edukiko dute..
- ◆ Web orrialdean deskontu kupoiak trukatzeko aukera egongo da, produktu sorta batzuen gain, aldi baterako eskuragarri egongo direnak, bakoitza bere deskontuarekin, erosleak produktu horietara bideratuz.

➤ **Enpresa berri eta txiki bat izanda dirulaguntza publikoa eskatuko dugu. Hurrengokoak izango dira:**

- ◆ **Berrikuntza 6.801.000 €**
 - BDIH Konexio Innovación 551.000€
- ◆ **Enpruntziazioa 4.800.000 €**
 - Basque Fondo Emprendimiento:
 - Aurrera Emprendimiento
- **Pymes lehen sektorea 13.968.000 €**
 - ◆ Nekazaritza-ustiategien titularrentzako laguntzak. 500.000 €.
 - ◆ **Elikagaien industria 66.150.000 €**
 - ◆ Lehiatu berria. 22.600.000€
 - ◆ Lehiatu promozioa. Elikagaien Kalitatea eta Industriak. 700.000 €
 - ◆ Elikagai digitalizazioa 2.000.000 €